1/ 1936'ko Ipaizaren 9'an

## Maite-gaia nundik yatorkun ta zelan zuzendu dan.

Maite-gaia!!! Barru-barruan beteak, azal-azalean besteko, ¿nork ez dau maite-gairik? Gizon bizi-izpirik dauan-arte diraun maite-gai ori nundik yatorko?

"Ad imaginem et similitudinem suam" gizona egin eban alde-guztietara maite-txinpartak dariozan Jaungoikoak ezarri eutson txinparta bere unetan. Ta txinpart oretk sortu daben maite-gai ori amatau edo itzali-ezina da.

Beari-beareko yako gizonari maitasuna. Beari-beareko yakon maite-kilikili orek bana, ez al-dau beiñ baño geiagotan gizonik ondatu? Jatorizko dogu maite-egarri. Ezin daikegu egarri ori ipurditik kendu, geure buruak ondatzeraño.

Jatorizkoak bizi diranak zuzentzeko almena be, ba-dogu baiña ta jatorizko maite ori, berez okerra ezaneren be, zuzendu daikegu.

Maite-gai orrek zuzendari bedi adimena ta Jainkoa neurri.

Jainkoa-neurri...

Jainkoak egin ginduzan eta beretzat egin, be. Beretzat egin ba'ginduzan, guazen Beregana. Bete dagigun geure eginkizuna. Gure aburu gara dan ta bide-erakusle be, bera betiko-kora joan bear daben jatorriaren, ara nundik duaten begiratzeka, ara duben lekutik duana, zuzen al-dua?

Zuditeko maitegarriak. Zerako maitagarriak emoan geunduzen eginak dira. Zuditeko gauza denak al-yakuz baño maitagarri ta besterako bide? Ez; denak maitagarri ta besterako bide ba'litzakiguz, ez genduke izango gaiztakeri ta okerik, ez oker-biderik. Zeintzuk dira, ba, maitegarriak? Nun ase daikegu egarri legor ito-beerakuan!

Zuzendari bekizu adimena...

Adimenak erakutsiko dautzu bide bakotzak nora zaruakezan. Zabiltz bere argitan ta izan zadiz bere esaneko, zuzen eta ondo zuzzaletzetan galbiderik izan ez dakizun eta pendizetan jausi ez zadizan.

Gizonentzat ezagutza da maite-iturri. Ezagutzen ez dozunik ezin maite daikezu; ain erime entzun izan dozu. Ezagutza ori egiztoa ta osoa, ba, da zure maitasuna be, osoa ta egiztoa, iraunkorra izango da. Jainkoa ezagutuko ba'genduke, [illegible]

2/

maiteko genduke. Ezaguera-naiari eutsiten maitea aldakorra da. Erdi-ezagutzetik yetorkun maitasuna be, argi-barri batek be riak ......tu daiteke. Zer alkarren-alkarrenak eta bete-bestiagandik aldendu ezinik ebilzanak zer dala-ta barik banandutu, elkarrenganako jitik gabe ez al dozuz ikusi?

Gure maite-jarioaklaña igalder dirudi. Ez deust edozerk eusten. Ontzi aundiak beteko leukez. Gauza asko ta asko kaskar ta koskor dira gure maitearentzat. Jaunkoiak ito daike gure maite-egarria; beste iñorek, bez. Eta gizonak bere maite-egariak sortu dautson egarriari Jainkoagan itoten ez ba-dau, ase ezinik iturririk-iturri ariko da. Maite nai ta zer maite ez, bere zenetik be ez urten, adimena ituxitu ta beriak itsututa askenez sentzumeneri jaramon egiten ariko da.

Adimen-argirik barik, zentzumenak, biok itsuak diranetsoenatara ainbestean da.

Auxe da maitasunik kaskarrena. Zentzumenak bide ta zentzumen asetzetan oñarria daben maite au aldikoia ta aldakorra yatzu, ere erituela. Pozistade bakotzen ostean, gogait-eginda, aulduta maiñ ustuta isten dau gizona.

Adimen-bidez irikiten dan maite-garrak, mosturaren sua dirudi. Sua orrek yaidaria, beroa ta argia damotzoz gizonari jadaria... bai; jardunerako indarpena; bariren beriz asperkeria ekin dagien beroa ta galdu ez dagian argia...

Zentzumenezko maitasunak ostera, kinarra igeren gar-bolada biei ta aldikor, dirudi. Su-bolada orrek ez damotso beroagik; ez da indarrik be, berak be, ez dau indarik eta; argia bai bana argiari beterakoa da, ta jantera bizkegia; ezer erakustekotan itsutuago egiten dau gizona. Ereindakoan, antxetxorik bada, arek be, ere egiten dauz.

Ta pozistade ondoren? Autsa, ezer-eza; negaria, gogaita. Gure buruari begiratu ta geure buruak be ezagutu ez. Dana yatun gogait-garri ta ilun. Dana itun. Gero gagoz zorabiatute ta ezpiruak len gentuzanenak direnik ez deritxagu.